

Kutxabankek hirugarren Hitzarmen Kolektiboa sinatzeko aurreakordioa lortu du, sindikatuen % 59ko babesarekin

- **Gizarte-arloan eta, bereziki, lana eta familia uztartzeko neurrietan hobekuntzak jasotzen ditu.**
- **Iraunkorra izateko xedearekin, hitzarmen honek sortuko dituen egonkortasuna eta sendotasuna baloratu eta nabarmentzen ditu Kutxabankek**

2021eko martxoaren 25ean. Kutxabanken Negoziazio Mahaiko ordezkarien % 59rekin aurreakordioa lortu du Kutxabankek, eta behin betiko testu osoa idazteko aldi baten ondoren, bere hirugarren Hitzarmen Kolektiboa sinatuko du.

Konpromisoak alderdien negoziazio-borondatea eta epe luzerako ikuspegia islatzen ditu, eta **merkatuaren egoerara ezinbestean egokitzeko** baldintzak betetzen ditu. Enpresak oso positiboki baloratzen ditu akordioarekin lortu diren **egonkortasuna** eta **sendotasuna** egungo ingurune ekonomiko zailean. **Sei urtez**, 2019tik 2024ra, izango da indarrean.

Datozen urteetarako itundutako soldata-igoerak KPlari lotuta egongo dira, eta, horrez gain, aldatu egingo dira antzintasuna sortzeko zenbait mekanismo automatiko. Horrela **kostuei eustea** ahalbidetuko da testuinguru zail batean.

Kutxabanken hirugarren Hitzarmen Kolektiboak **hobekuntzak egingo ditu arlo sozialean**, eta, bereziki, **lana eta familia bateratzeko neurrietan**, **Bankuak arlo horretan duen konpromisoaren ildotik**; hobekuntza horietako batzuk dira kontziliazio-premiei erantzuteko urteko orduak gehitzea, amatasunaren eta aitatasunaren eta lanaldi-murrizketen gozamina malgutzeara, eta kontziliazio-arrazoiengatik ordaindu gabeko baimenak ematea.

Testu berriaren arabera, lanbide-sustapenari buruzko **azterketa-batzorde** bat sortuko da, bai eta **enplegua aztertzeko batzorde** bat ere, **kontratazio-beharrak** aztertzeke, besteak beste.

Dokumentuan, gainera, gai berriak jasotzen dira, hala nola **telelanaren erregularizazioa** eta etxetik lan egiten duten langileentzako konpentsazioak, betiere lanaldiaren % 30 gutxienez eta % 80 gehienez egiten badute, aurrez aurreko lan-egun bat bermatuz.

Kutxabankek aintzat hartzen du langileen eta gehiengo sindikalaren ahalegina, merkatuaren eta negoziarioaren errealitatearekin bat datorrena, eta proiektuaren iraunkortasuna epe luzera ziurtatzeko modurik onena dela uste du.